



ZESTOAKO UDALA

UROLA KOSTAKO
HITZA

Zestoako Udalaren eta Urola Kostako Hedabideak SMren arteko hitzarmena

BILDURIK:

Alde batetik, Leire Etxeberria Lizarralde, Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakaria eta, hitzarmen hau sinatzeko, 2015eko apirilaren 14ko Tokiko Gobernu Batzordearen bilkurak ahalmendua denez,

Bestetik, Onintza Lete Arrieta andrea, 72488978Q zenbakiko Nortasun Agiria duena Urola Kostako Hedabideak SMren izenean,

Biek dokumentu hau emateko legezko gaitasuna elkarri onetsiz, ADIERAZTEN DUTE

- a) Urola-kostako Hitza, eskualde mailako egunkari bakarra da, astean 4 egunetan argitaratzen dena eta Urola-kostako herri bakoitzaren berriez gain, euskalde mailako gertakariak eta ekintzak jasotzen ditu.
- b) Urola Kostako Hedabideak SMK, Urola Kostako informazioaz osatutako egunkaria eta webgunea egiten du, Urola Kostako Hitza izenekoa asteartetik ostiralera, eta egunero urolakosta.hitza.eus, eta urolakosta.hitza.eus/herriak/zestoa/ webguneetan Zestoako berri ematen dute, zabal. Hauek dira komunikabideen ezaugarriak: finantziarioa pribatua (bi heren inguru) eta publikoa dituztenak, eta herrigintzan oinarrituak. Informazio produktu horien sorburua, euskarazko komunikazio eta kultur erakundeetan dago.
- c) Informazioa emateko helburua era zabal eta irekian bideratzen bada, alderdikieretan erori gabe, Zestoako Udalak Urola Kostako Hitza eta urolakosta.hitza.eus eta sor litezkeen beste proiektuak herrirako eta eskualderako onuragarriak direla uste du.
- d) Urola Kostako Hitza egunkaria eta urolakosta.hitza.eus, euskararen erabilera areagotzeko lanean ari dira euskararen normalizazioa lortzeko bidean oso tresna garrantzitsuak dira eta izango dira, eta horren guztiaren onuradun Urola Kostako herritarrak izango dira. Beraz, Zestoarrak ere bai.
- e) Urola Kostako Hedabideak SMK bide horretatik lan egiteko konpromisoa hartua du, eta Udalak erakunde horrekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazten du.
- f) Hitzarmenak, Zestoako Urola Kostako Hedabideak SM eta Udalaren arteko lankidetzaren esparrua zehaztu eta araupetzea du helburu Zestoako udalerrian elkarrekin argitaratzen duen aldizkariaren inguruko jardura sustatzeko.

KLAUSULAK

NORTASUN JURIDIKOA. Bi aldeek aitortzen dute Urola Kostako Hedabideak SM zuzenbide pribatuko elkarte dela eta Zestoako Udaleko aginte organoekin inolako menpekotasunik ez duela ezta lan harremanik ere.

APLIKAGARRIA DEN ARAUDIA.



ZESTOAKO UDALA

UROLA KOSTAKO
HITZA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoa.

887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoa.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 8ko 4/2005 Legea (24.2 artikulua xedetzen duenez, "euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei").

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

Datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak

Hitzaremena sinatzeko momentuan indarrean dauden udalaren eta gainerakoen arauak.

XEDEA ETA EZAUGARRIAK.

- a) **EDUKIAK.** Egunkariak eta webguneak, informazioa jorratzean eta zabaltzean, era guztietako edukiak eta gaiak argitaratuko dituzte. Independentiak, pluralak, orekatuak eta parte-hartzaileak izango dira. Beraz, alderdi politikoen eta iritzi taldeen eraginpean izatea saihestuko dute, eta inpartzialtasuna zainduko. Eskualdeko beste elkarteek eta herritar orok parte hartu ahal izango dute egunkarian eta webgunean.
- b) **ZESTOAKO BERRIEN PRESENTZIA.** Zenbaki guztietan agertuko dira Zestoako berriak, eta herriko karta osatuko dute.
Data edo gertaera baten inguruan –emakume langileen eguna, euskararen eguna...-- eskualdeko beste herrietan ekintzak antolatzen direnean, Zestoan gertatutakoak edo egindakoak ere jasoko dira eta beste herrietakoen ondoan trataera orekatua izango du.
- c) **UDALA ETA HERRIKO ELKARTEAK INFORMAZIO ITURRI.** Zestoako Udala informazio iturri garrantzitsua da herriko bizitzan. Horrela, egunkariak eta webguneak Udalaren eta herritarren arteko zubi izan nahi dute, eta Udalarekin zerikusia duten albisteak argitaratuko dituzte.
Era berean, HITZAK komunikazio bideak eratuko ditu informazio iturri diren herri elkar-teen berriak jasotzeko.
Lehenengo puntuaren ildo berean, aipatutako produktuak informazioaren aniztasunean eta orekan oinarrituko dira.
- d) **UROLA KOSTAKO HITZA.** Era berean, Danbolin herri aldizkariarekin lankidetzak aukerak landuko dira, elkarri lagundu eta aberasteko.
- e) **ERRESPETUA.** Argitalpenean zaindu egingo da pertsonaren errespetua edo norbaiti min eragin diezaiokkeen informaziorik ez ematea. Era berean, saihestu egingo dute bazterkeria oro.
- f) **HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK.** Egunkaria eta interneteko ataria euskara batuan idatzko dira, baina eskualdeko ukituarekin. Hizkuntza eredu bihur daitezke irakurleentzat. Eta eredu izan daitezkeen aldetik, ahal den eredurik egokienak izaten saiatuko dira. Beraz, gutxienezko hizkuntza kalitatea ziurtatu behar dute, eta bereziki zainduko da toponimoen erabilera.



ZESTOAKO UDALA

UROLA KOSTAKO
HITZA

- g) **NORMALIZAZIOA.** Euskararen normalizaziora begirako lanean segituko dute, eta normalizazioarekin zerikusia duten beste ekimen denak zabalduko eta sustatuko dituzte.
- h) **MAIZTASUNA.** Urola Kostako Hitza asteen lau aldiz argitaratuko da eta <http://urolakosta.hitza.eus/> eta <http://urolakosta.hitza.eus/category/herriak/zestoa/> edizio jarraituan.
- i) **INOREN MATERIALAK ERABILTZEA.** Hirugarren baten jabetza intelektualaren eskubideak urratu ez daitezzen, Urola Kostako Hedabideak SMk behar diren baimenak kudeatu behar dituzte eta, hala denean, titularrekin adostutako royaltiak ordaindu. Zestoako Udala ez da ez zuzenean, ezta subsidiarioki ere, jabetza intelektualaren gainean gerta daitezkeen kalteen erantzule izango.

ZESTOAKO UDALAREN LAGUNTZA. Zestoako Udalak Urola Kostako Hedabideak SMk argitaratzen dituen egunkariaren eta edizio jarraituaren burutzapen egokia bermatuko du, horretarako diruz lagunduz. Nolanahi ere, proiektuak bideragarriak izan daitezzen, beste erakunde publikoetara ere diru-laguntza eskatuko die (eskualdeko Udalei, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari). Hala ere, beste finantzabide batzuk lortuz gero, ezingo da inoiz izan gain-finantzaketarik udalaren diru-laguntzarekin. Horri buruz, ekitaldiaren bukaerako ordainketan edo likidazioan, udalak, gastuak eta diru sarrerak ikusi eta gero, ordaindu beharreko kopurua zuzendu egingo du, gain-finantzaketa hori izan ez dadin, eta kasu horretan onuradunak itzuli egin behar du, hala badagokio, ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa, hala behar izanez gero.

LAGUNTZA EKONOMIKOA. Zestoako Udalak, egunkaria eta edizio jarraitua argitaratzeko biztanleko 2,00€-ko diru-laguntza emango du. Kalkulua egiteko, aurreko urteko abenduaren 31n errotatutako biztanle kopurua erabiliko da. 2015 urtean, onartutako diru-laguntza 7.448€koa izango da. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 28. artikuluan ezarritakoan oinarrituz, diru-laguntza zuzenean emango da, eta hori aurrekontu-sail berezian ageriko da. Zestoako Udalak zenbateko hori gutxituko du gain-finantziazioa gertatzen bada. Era berean, beste erakundeek ekarpenak murrizten badira, Udalak aztertuko du diru-partida hori handitzeko aukera.

DESKONTUA PUBLIZITATEAN. Urola Kostako Hedabideak EMk Zestoako Udalari urtero emandako diru-laguntzaren erdiaren balio duen publizitaterako tartea emango dio Zestoako Udalari. Publizitate horren edukia, tamaina eta datak urteko plangintzan jasoko dira.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. Urte bakoitzeko urtarrilaren amaierarako, Urola Kostako Hedabideak SMren ordezkariak edo erantzuleak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Urteko proiektua eta horren aurrekontua, beti ere, egunkariari eta edizio jarraituari dagokienez. Bertan honako atalak azalduko dira, besteak beste: helburuak, jarduerak edo ekintzak, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, material baliabideak, baliabide metodologikoak, ebaluazioa...
- Egunkariari eta edizio jarraituari dagokien gastuen eta sarreraren aurrekontua.
- Hitzarmen honetan eta udal aurrekontuetan ezarritako diru-laguntzen onuraduna izatea debekatzen duen arrazoirik ez dagoela egiaztatzen behar du elkarteak, erantzukizuneko adierazpenaren bidez.

Aipatutako dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu gabe dagoenean, 15 eguneko epea emango zaio elkarteari, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten den hurrengo egunetik

UROLA KOSTAKO
HEDABIDEAK, E.M.
B-20834347





ZESTOAKO UDALA

UROLA KOSTAKO
HITZA

hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko. Emandako epea igarotakoan, horiek zuzendu gabe baleude, hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango du Zestoako Udalak.

ZERGA BETEBEHARRAK. Urola Kostako Hedabideak SMk bermatu egin beharko du zerga obligazioak betetzen dituela: Gizarte Segurantzarekin, eta Foru Ogasunarekin (edo Estatuko Ogasunarekin hala badagokio).

ELKARTEAREN OBLIGAZIOAK:

- Hitzarmen honetan aipatutako helburuak betetzea, proiektua betearaztea, eta hitzarmen hau egiteko arrazoi den jokabideari eustea.
- Zestoako Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea; baita eskuduntza duten beste kontrol organoek (estatukoak nahiz erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa ematea.
- Zestoako Udalari jakinaraztea beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko bultzak lortu baldin badira. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta nolahi ere, fondoetako emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
- Urola Kostako Hedabideak SMk Zestoako Udalaren diru-laguntza jasotzen dutela adieraziko du egunkarian eta edizio jarraituan.
- Jasotako fondoak itzultzea, gain-finantzazioa gertatuko balitz.
- Behar beste baimen lortzea, aldizkaria garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

ORDAINKETA. Udalak urteko diru-laguntza honela emango dio Urola Kostako Hedabideak SMri: urte bakoitzari dagokion kopuruaren %60 urte bakoitzeko lehen hiru hilabeteetan, eta %40 urteko jarraipen batzordeak memoria onetsitakoan.

URTEKO MEMORIA. Urte bukaerarako, Urola Kostako Hedabideak SMk, emandako laguntza egiaztatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu: gastuak eta diru sarreraren zerrera eta, Udalak eskatzen badizkio, jatorrizko fakturak edo egiaztatutako kopiak; lortutako emaitzen balorazio bat eta Zestoako berrien estatistikak. Dokumentazio hori aurkeztu ezean, Zestoako Udalak bukatutzat emango du hitzarmena eta espedientea hasiko du ofizioz, ordainduta dauden aurrerakinak itzuli daitezzen.

DIRUZ LAGUNTZEKO GASTU KONTZEPTUAK. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren izaerari erantzuten diotena. Gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturala bukatzen denean amaituko da. Halaber, birkontratatzeko baldintzei buruz Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 29. eta 31. artikuluetan xedatutakoa bete behar da. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan, legezko baliorik ez duten fakturak edo/eta egiaztagirijotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez dituzten gastuoharrak edo bestelako dokumentuak. Halaber, ez dira kontuan hartuko bazkari, afari edo ostalar-tza zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituzte-



ZESTOAKO UDALA

UROLA KOSTAKO
HITZA

nekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago. Dena den, eta salbuespeñez, berariaz baimena eman ahal izango du Udalak, dagokion akordioaren bidez, gastu kontzeptu hori egiteko.

JARRAIPEN BATZORDEA. Urola Kostako Hedabideak SMK eta Zestoako Udaleko Kultura Batzordeak bina kide izendatuko dituzte jarraipen batzordean parte hartzeko. Arduraduna Kultura batzordeburua izango da.

JARRAIPEN BILERAK. Zestoako Udala eta Urola Kostako Hedabideak SMko ordezkariak gutxienez hiru bilera egingo dituzte urtean: bata, abenduan, urteko memoria aurkeztu, ebaluaketa egin eta datorren urterako proiektua aurkezteko; eta besteak martxoan eta ekainean hitzarmenaren bete-tze maila baloratzeko eta, hala balegokio, neurri zuzentzaileak adosteko.

HITZARMENAREN IRAUPENA. Hitzarmena urtetik urtera berrituko da, beti ere alderdi bien artean jarraipen bilera egin eta gero. Martxoaren 30erako hitzarmen berria sinatu gabe balego, aurreko urtekoa luzatutzat emango da hurrengo urtera arte.

HITZARMENA HAUSTEA. Bi aldetatik edozeinek laga dezake bertan behera hitzarmen hau bere kabuz. Hala gertatuz gero, hasitako ekintzak bukatzea bermatuko da. Hitzarmena bukatzeko nahia idatziz azaldu, eta hiru hilabetera bukatuko da indarraldia.

Eta, bi erakundeek adostasunez sinatzen dute hitzarmen hau, ale bikoitzez, Zestoan 2015eko maiatzaren 29an.

Leire Etxeberria Lizarralde
Zestoako Udaleko alkatea



Onintza Lete Arrieta
Urola Kostako Hedabideak SMr

